



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO
Tfona. : 943-313030 e-posta: infogeldo@euskalerrria.org

**Maiatzaren 15 eta 16ean
Udaberriko Jaia!!!**

**KONTU KONTARI:
Agurtzane Garcia
Igeldoko etorkinen
zentroko zuzendaria**



Kaixo herrikide!!!

Maiatzarekin eta udaberriko festarekin batera, zuen etxeetan gara berriz ere. Dena dela, aurreko alean aurreratu genizuen bezala, Emakume Langilearen eguna ospatzeko, herriko emakumeek afaria egiteko asmoa zuten Etxe Nagusin. Bada espero bezala, afari hori egin zen. Urtero bezala, arrakasta handia izan zuen. Herriko 60bat emakume bildu ziren eta ezer baino lehen, bertako giroaren berri emango dizuegu.



Gustora jan, edan eta hitz egiteko aukera izan zen



Urteroko legez, tripa ondo bete ondoren kantari!



Aspaldiko partez trikitixari hautsa kentzen bikote?



Ameztiko ahizpak begiratu txoritxoari... klik!



Aiii! adinean gora, bista behera! nun ditun betaurrekuk????



Hilabete osoako badun jana Ixiar, aze karga!!!

Elkarrizketa: Agurtzane Garcia

Adin txikiko etorkinen zentroa martxan dagoela eta, hauen egunerokotasuna ezagutu asmoz, Agurtzane Garciarekin (etxeko zuzendariarekin) bildu ginen Orri Informatibokook. Jarrera oso irekian hartu gintuen eta etxea erakustez gain hainbat gauza kontatu zizkigun. Agurtzane, 29 urteko donostiarra eta Urgatzi enpresako langilea da. Lan honetan pare bat urte diharduela esan zigun, eta aurrez urgentziako etxe batean ere lanean aritua dela. Hala ere, erresidentzia etxeak nahiago ditu, bertan proiektu osoago bat garatzen baita haurrekin. Helburu nagusia, integrazioa lantzeaz aparte, gazte hauen autonomia garatzea da, 18 urte betetzean euren kabuz bizi eta lan egin dezaten.

Zentroa otsailaren 16an ireki zen, baina talde bezala lehenagotik hasi ziren, urtarrilaren 14an. Haurrak pixkanaka hasi ziren sartzen. Lehenengo bi txandatan hironaka sartu ziren eta azkenekoan lau. Guztira, beraz, 14 urte inguruko 10 gazte bizi dira. Hezitzaile taldea 12 kidek osatzen dute, eta horietatik 2 atzerritarrak dira, bat argeliarra eta bestea marokoarra. Agurtzaneren esanetan, gazte hauei asko kostatzen zaie euren sentimenduak azaltzea eta garrantzitsua da arabieraz hitz egiten duten hezitzaileak izatea taldean.

Etxea berri-berria dagoela ikusi ahal izan genuen, lehendabiziko pisuan sukaldea, egongela eta bulegoa ditu eta goian logelak. Azpialdean, garaje handi bat du eta bertan eguraldi txarra egitean jolasteko aukera izaten dute. Kanpoko terreno puskan berriz, zenbait fruitu-arbola ere badituzte eta aurrera begira baratza koxkor bat egiteko asmoa dutela aipatu zigun.

Etxeko lanak, astean zehar Inma sukaldariak egiten ditu, haurrek eskola dela eta astirik ez dutelako, baina asteburuetan gazteen artean, txandaka egiten dituztela aipatu zigun Agurtzanek. Hala ere, logelen txukuntasuna gazteen esku dagoela azpimarratu zuen, bakoitzak bere espazioa bere moduan mantentzen ikastea beharrezkoa dela argudiatuz.



"Jendeak haur horien errealitatea zein den ezagutzea gustatuko litzaidake"

Zergatik datoz?

Denetik dago. Batzuk muturreko pobrezian bizitzetik datoz. Han orokorrean familia ugariak izaten dira eta ez dute denek jatekoa izaten. Kasu horietan familia bera da haurra etorkizun hobearen bila honaino bultzatzen duena. Baina beste kasu batzuetan guraso asko gaizki pasatzen ari dira haurrek eurek alde egitea erabaki dutelako ezer esan gabe.

Eta hona iristen direnean zer? Espero zutena al da?

Askok pentsatzen dute hona etorri, lanean jarri eta

dirua bidaltzeko aukera izango dutela eta hori ez da horrela. Lehenik haur edo gazteak ikasi egin behar du eta 16urtetik aurrera, heziketa egokia badu, agian lanean hasiko da, baina bitartean ez dago zer eginik. Kasu horietan, haurrak familiarengandik dirua bidaltzeko presioa izaten dute eta lapurtzera irits daitezke. Azken finean, ez dute huts egin nahi, euren ardura dela uste dute. Dena dela, egoera aldatzen ari da. Euren artean hitz eginda gaur egun badakite gutxi gora-behera hemengo errealitatea zein den. Orain ez dute "lana nahi dut" esaten, "tailer bat nahi dut" baizik.

Nola iristen dira?

Gehienak kamioi azpitan iristen dira. Eta beste asko imaginatzen dut bidean geratuko direla. Eurek kontatzen dute nola Tangerren batzuk poliziak eta zakurrak despistatzen saitzen diren eta besteak nola kamioi azpitan sartzen diren. Markak erakusten dizkigute eta esaten digute "hemen kozka egin zidan zakurrak" eta halakoak. Izan ere, batzuk behin baino gehiagotan egin dute saiakera.

Zein da zuen eginbeharra?

Proiektuaren funtsa eurak denerako autonomo izan daitezela lortzea da. Horrek esan nahi du atobusa hartzeko, euren dirua gestionatzeko edota euren etxea txukun mantentzeko gai izan behar direla. Bizitzan aurrera egiteko beharko dituzten tresnak ematen saiatzen gara gu. Jakina, edozein nerabek izan ditzakeen arazoak izateaz gain, zailtasun gehiago dituzte. Ez dute halako ohiturarik eta ez dute inor eduki irakasteko. Nahiz eta batzuk 14 urteko haurrak izan askorekin hutsetik hasi behar izan dugu.



Ze baldintza dute zentroan bizi ahal izateko?

Pisu hau 18 urte bete arte formatzeko aprobetxatu nahi duten haurrentzat da. Aurrera begira lanpostu bat lortu nahi dutenentzat eta gerora, euren kabuz bizitzeko pisu bat lortu nahi dutenentzat. Harrera etxeko funtzionamendu sistema edota etxe barneko zein kanpoko arauak betetzen ez dituen haurra kale-ratua da.

Nola antolatzen zarete?

Etxeko eginbarren zerrenda badaukagu, baina egunerokotasunerako ez dugu ekintza zehatzik izaten etxean. Gainera hurrek ia egun osoa kanpoan pasatzen dute. Lehenengo txandakoak 6:15etan jai-

kitzen dira eta bigarrenekoak, 6:45etan. Eskola eta eskolaz kanpoko ekintzak direla eta gau partera arte asko ez dira etxera itzultzen. Dena dela, etxean ere egun jakin batzuk hartzen ditugu hizkuntza lantzeko, tailerrak egiteko edo irteerarenbat egiteko. Eta beste ordu batzuk euren aisirako dituzte. Bestalde, astean behin bilera egiten dugu eurekin hitz egiteko.

Eta asteburuetan?

Asteburuan, lo gehiago egiteko aukera dute Beranduenez 10:30etan gosaldutik dezakete. Larunbatetan goizetan sukaldaritzako tailerra egiten dugu. Eurek prestatzen dute bazkaria txandaka. Afaria, berriz, Inmak. Bazkaria egitea tokatzen ez zaienek etxeko garbiketa egiten dute. Eta arratsaldean, derrigorrezko ekintzaren bat antolatzen dugu. Aurrera begira asmoa dugu egun osoko irteerak egiteko. Igandeari dagokionean, goiza berdinean antolatuta dugu eta arratsaldea libre izaten dute nahi dutena egiteko.

Nola daramate hezkuntzarena?

Eskolako ordutegia gogorra egiten zaie, kontzentratzeko eta arreta jartzeko komerkiak izaten dituzte, baina pixkanaka egokitzen doazela iruditzen zait. Marokon oso ezberdina da eskolen funtzionamendua. Han 6 urterekin hasten dira eskolara joaten eta askok 10ekin utzi egiten dute lanean hasteko. Gainera, guk orain dela 60bat urte genuen hezkuntza sistema dutela esan daiteke. Dena dela, eskola ordutegia zaila egiten zaiela jakinda zenbait eskolatan arratsalde pare bat libre uzten dizkiete.

Hizkuntza berria ere bai...

Bai, baina hizkuntza ikasten asko ahalegintzen dira. Hala ere, eskola asko ez daude haur etorkinak hartzeko behar bezala prestatuta eta hori arazo izaten da. Baten batzuk badituzte programak eta egokiak ere bai, baina beste batzuk ez. Hezkuntza saileko protokoloak hala agintzen duelako bertan matrikulatu behar dituzu, baina ez benetan egokiak direlako.

Esperientzia falta ere izango da.

Hori da, eta zentroek ez dutenez aurreko prestakuntzarik bada kasu askotan integrazioa aurrera eramatea kosta egiten da. Ez dakite zein klasetara bidali... Eurei zuzendutako klase batzuk badituzte, hizkuntza ikasteko, esaterako, baina gainerakoan, euren adineko haurrekin jartzen saiatzen dira. Eta noski, ez dute maila bera materiaren ezagutzan. Konplexua da.

Eta batzuek klaseak euskaraz dituzte, ezta?

Kasu horietan ere klase berdinean egoten dira, baina

materiala moldatu egiten diete, gazteleraz ematen dizkiete. Baina klasean egonda, modu batean hizkuntza barneratzen da, eta niretzat garrantzitsuena zera da: horrela euren adineko haurrek zer egiten duten ikasten dutela. Orain eurek egin behar dutena materia ikastea baino ingurura egokitzea da.

Nola lantzen duzue integrazioa?

Helburua bertan finkatzea izanik lagun talde egonkorrak bilatzen ahalegintzen gara. Euren afizioei jarraiki taldeetan sartzen ditugu. Haur berriekin erlazionatzen dira, ez dira ohiko lagunak eurentzat. Zehazki eurek eskatzen digute jarduera horietan sakabanatuta egotea eta talde berri horietan, batez ere, bertako haurrekin harremana landu dezaten saiatzen gara. Helburua etxekoaz aparte norberak lagun talde bat lortzea da. Oso gustura ibiltzen dira, baina konturatzen gara geratzen direnean jarduera horretarako bakarrik geratzen direla.

Zer egin horren aurrean?

Nik ulertzen dut konplexua dela komunikabideetan entzuten diren gauzak entzunda. Ezezkoak ere jaso ditugu zenbait futbol taldeetatik eta hori jende helduaren jokabidea da. Azken batean, haurrek hori jasotzen dute eta zeharka baldin bada ere horrek eragina du gazteen arteko jarreraren. Gazte askok eurak integrarazteko jarrera badute, baina ez da behar adinakoa. Bestalde, eurei ere esaten diegu jendeak ezagutzea nahi badute eurak ezagutzeko aukera eman behar dutela. Lan asko dago egiteko bi aldetatik. Baina tira, nik uste pixkanaka joango direla integratzen. Gurasoek ere futbol partiduetan aukera dute eurak ezagutzen joateko eta hortik eurekiko beste kontzeptu bat izateko.

Zer sentitzen dute eurei buruz entzuten direnak entzunda?

Indignatuta sentitzen dira. Nik uste hori dela hitz egokia. Nire adinagatik nik uler dezaket gertatzen dena, baina eurek ez. Uler dezakete jendeak beldurra izatea edo gaizki sentitzea, baina aldi berean ez dute ulertzen eurak ezagutu gabe kaletik paseatzean zergatik geratu behar dituzten eta behin baino gehiagotan arakatu edota askok gaizki begiratu.

Nolakoa izan da Igeldorako etorrera?

Pixka bat zaila. Haurrek bazekiten etxea erre egin zela eta beldur pixka bat zuten. Gauza asko entzuten dira, eurek ez dakite zer sinestu, zer pentsatu... Hori horrela, hasieran gai hori asko landu behar izan genuen. Lasaitasuna transmititu. "Hemen ez da ezer gertatzen. Etxea erre egin zen bai, baina konpondu

da eta hemen bizitzen gaude. Inor ez zaizue etorri ezer esatera eta ez dago arazorik".

Ongi egokitzen ari al dira bizileku berrira?

Eurak ohituta daude alde batetik bestera mugitzera eta kosta egiten zaie etxe hau lau urtetarako euren etxea izango dela barneratzea. Batzuk bi hilabete egin dituzte Tolosan, gero beste sei hilabete Perurenan... Guztira hemen, Gipuzkoan, zortzi hilabete egin dituenik bada eta urtebete ere bai, baina ez beti leku berean. Orain leku baten parte direla sentitu behar dute. Hori ere landu egin behar da. Helburua bertakoak senti daitezela lortzea da.

Eta etxera?

Etxera gutxi gora-behera ohitu dira. Modu batean esateko, urgentziako zentroetan ez duten askatasuna badute. Zentro horietan sukaldea giltzatuta egoten da eta zenbaitetan jangela ere bai. Hemen askatasun hori ez da hain mugatua eta, azken batean, etxea euren parte sentitzen dute. Baina herrira joateak oraindik errespetua ematen die.



Amaitzeko, zerbait gehitu nahiko zenuke?

Nik ulertzen dut jendeak beldurra edukitzea eta zaila egiten zaiela konfiatzea, baina gustatuko litzaidake jendeak haur horien errealitatea zein den ezagutzea. Pertsonalki, ez dakit nola biziko nintzakeen egunero informe baten menpe egonda. Informe horren arabera izan dezake gazteak aurrera egiteko aukera. Oso markatua dute dena. Lortu behar dituzten helburuak finkatzen zaizkie... eta azken finean halako presiorik ez du gutariko inork izan. Badakit arazoak sortzen dituzten gazteak badirela, baina ez dira guztiak. Batzuk aurrera egin nahi dute eta ez zaizkie aukera berdinak ematen. Espero dut egunen batean haiek ere hemengo haurrak bezala onartuak izatea.

Bota puntua

Jaten duguna gara!

KRISIA. 2009ko hitz erabiliena izango dela iruditzen zait. Komunikabideen eguneroko gaia behintzat bada. Krisian bizi omen gara, krisia lantokietan, krisia etxeetan, krisia kalean... eta baserrian? Nekazaritza aspalditik dago krisian, guretzat ez da berria hitza, ezta egoera ere.

Azken hamarkadetan munduko, Euskal Herriko eta baita Igeldoko nekazaritza gain-behera doa, sistema ekonomiko honek markatzen duen erritmoak eraginda. Geroz eta pertsona gutxiago ari gara hain zaharra den ogibide honetan lanean. Eta dihardugunok badugu zer aldarrikatua maiatzaren 21ko greba orokorrenan, nekazaritzak iraungo badu, beste erritmo bat beharrezkoa baita, naturaren erritmora hurbilduko dena. Baina nola da posible, helburutzat elikagaiak ekoiztea duen lanbidea krisian egotea? Zer jaten du gehiengoak? Gutxi batzuk bagara elikagaiak ekoizten ari garenak, guztiontzat ba al da janaririk?

Krisi garaia inflexio

puntu izaten omen dira, aldaketa-rako garaia. Eta pentsatzen jarrita, bai, badugu zer aldatua. Jendarte indibidual honetan, kolektibotasuna indartzea beharrezkoa dela iruditzen zait. Norbanakoak bere bakardadean egoera zailei aurre egitea nekeza izaten du eta taldean biltzean babesa sentitu ohi du. Azken hamarkada hauetan nekazaritza ere indibidualitatean murgildu arazi dute nekazal-politikek. Produkzio intentsibo eta monokultiboetan oinarritua. Gauza bakarrean modu handian eta prezio kaxkarretan. Azken arrazoi hau baita krisia eragin duen beste faktorea. Baserritarrek ekoizten dituzten produktuengatik hutsaren hurrengo ordaintzen dute industria eta banatzaile handiek. Eta kontsumitzailearengana iristerako hasierako prezioa hirukoiztu, lau-koiztu edo gehiago egiten da. (Esate baterako, batz bestea, baserritarrari haragia kiloko 4€ ordaintzen zaio eta kontsumitzaileak 15€ ordaintzen du, esne litroa 0,30 xentimo eta dendetan

1€ inguruan erosten da, patata kiloa 10-12pzt eta dendan 1€ inguruan...).

Beraz, ez al da ari baten bat baserritarren kontura aberastan? Ez al dugu hobe etxeko txerria gizentzea, bi hankako ZERRIAK gizentzea baino? Iritsi da garaia ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena lantzeko. Inongo bitartekaririk gabe, kontsumitzaileak ekoizleari zuzenean erosiz, bata eta bestearentzat prezio duinean. Horren trukean, ekoizleak, kalitatezko produktuak salduz modu justuan eta konfiantza osoan. Geroz eta baserritar gehiago dira bide hone-tatik pausoak ematen hasi direnak, barazki, haragi edo esnea salduz. Kooperatibak, kontsumitzaile sareak edo ekoizle taldeak sortzen ari dira, beti ere TALDEAN. Guztiok baitugu zer irabazia! Eta hasieran esan bezala, taldean krisiari aurre egitea errazagoa baita. GURE etxean, GURE herrian, GURE produktuekin elikatuz!


ON EGIN!

Larra.

Herrian ze berri?

PRESOEN ALDEKO SINADURA BILKETA

Sinadura bilketa bat egingo da Igeldon atez ate Euskal preso politikoaren eskubideen alde. Bi horri izango dira guztira sinatzeko, bata Donostian erroldaturik daudenezat soilik, eta bestea Euskal Herriar orok sinatu ahal duena. Bi testuetan preso politikoaren eskubideen bortxaketarako sortu diren azken legeak salatu, eta parlamentu nahiz udaletxeei neurri zehatzak hartzeko eskatzen zaie, zurikeriak alde batera utzita.



KIXMI

Urtero bezala aurten ere irteera egin dugu. Hondarribira joan gara eta pirata asteburu bikaina pasa dugu naiz eta eguraldiak asko ez lagundu. Haur kopurua ez da oso handia izan baina oso ondo ibili gara. Ea hurrengo batean gehiago animatzen zareten!!!!

Udalekuak badatoz!!!! oraindik ez dugu zehaztu noiz izango den apuntatzeko epea. Adi egon kultur etxeko tabloiarri!!! uztailen izango dira eta jakinaren gainean jarriko zaituztegu. Besterik gabe, ondo segi.



SINDIKATUKO PROIEKTUA

Donostiako Udaleko Fomentoko departamenduak azterketa bat egin du proiektu honen bideragarritasunaren inguruan. (Beste azterketa bat gehiago!). Orokorrean positiboki baloratu dute baina aurrerapen handirik ez da ikusi. Beraien lana horretan gelditu da eta orain hirigintzakoe-kin hitz egin beharko dela adierazi zuten. Azken urte hauetan departamendutik departamendura dabil proiektua eta bitartean etxea egoera tamalgarrian aurkitzen da, herritik zerbait egiteko garaia iritsi da! Nola eta zer egin baloratu beharko da.

BEROGAILUA

Azkenean Itsas Aurren badugu berogailua! Bukatu dira neguko bilera hotzak! Ea pixkanaka etxea txukuntzen eta goxatzen dugun!

ESPALIOA

Herritik kanpinera bitarteko espaloiarene proiektua ataskatu xamarra dago. Lur jabe batekin izandako ezadostasuna dela eta, proiektu osoa geldirik dago. Hainbat lekutan dagoen arriskua ikusirik zenbait herritarrek txukunketa saioa ere egin dute, Etxe Nagusiko kurban esaterako, oinezkoentzako mesede ederra! Hala ere, Donostiako Udalak proiektu honekiko duen utzikeria onartezina da!

ARARTEKOAREN

ERANTZUNA

Igeldoko segregazioaren inguruan Foru Aldundiak inolako pausurik ematen ez zuela ikusirik, Itsas Aurre elkarteak Arartekora joatea erabaki zuten. Arartekoak igeldoa- rren kexa Foru Aldundiari helarazi zion eta azken honek urte honen amaierarako erantzun bat emango duela jakinarazi du. Dena dela, erabaki aurretik zenbait pauso eman behar dituela azaldu du Aldundiak eta gaiak duen garrantzia ikusita, datorren Orri Informatiboan zabalago landuko dugu.

LEZKARRI ABESBATZA

Apirilaren 25ean, Lezkarri abesbatzakoak, Gipuzkoako muga gainditu eta Nafarroako Doneztebe herrian izan ziren. Kantaldiaren ostean, afaria eta parrandaxoa ere egin zutela jakin dugu. Udazkenerako jarri zuten hurrengo hitz ordua, baina orduan Nafarrak izango dira

Igeldora etorriko direnak.

PILOTA TXAPELKETA

Martxan da jada Iker Artano Olasagastiren omenez egiten den eskuzko eta palazko pilota txapelketa. Lehen fasea amaitzear dago eta ondorenean, final laurdenak, erdiak eta finala izango dira, azken hau herriko festetan jokatu- ko da.

LIGELATUR ETA ARGAZKI LEHIAKETA

Aurten ere Musik@rtek antolatuta herriko literatur eta argazki zaleek aukera izan dute euren trebeziak erakusteko. Irabazleak zeintzuk diren Udaberriko jaietan jakingo da, maiatzak 16, larunbatean, izango den sari banaketan.

IGELDOTIK ERNIORA MENDI MARTXA

Maiatzaren 1ean, Langile egunarekin bat, herritik 15 neska-mutil- lek mendi martxa egin zuten Ernio helmugatzat hartuta. Goizeko 6tan abiatu eta 12ak ingururako tontorrean ziren guz- tiak. Ondoren, ondo merezitako bazkaria egin zuten Izurtzu jatet- xean. Etxera ekartzeko herriko lau taxixta boluntario ere bildu zitzaizkien mahaiaren bueltan. Giro bikainean ibili ziren egun guztian zehar eta ideiak izan duen emaitza ona ikusita, datorren urte- an ere irteera egiteko asmoa dago. Ea jende gehiago animatzen den!



UDABERRIKO JAIA



Udaberrian gaude, lurra esnatu da eta lantzeko garaia ere iritsi da. Aurtengoan, baserritarren eguna ospatuz, bildutako diru zati bat hainbeste denboran Donostiako Udaleko apaletan geldirik, lo-zorroan, egon den Sindikatuko proiektura bideratuko da. Ez gara Udallerri eta ez da erraza aurre egitea, baina guztion artean Igeldoko nekazaritzari bultzada bat emango dion proiektua martxan jartzeko garaia iritsi da. Hala maite dugulako Igeldo, berde eta bizirik!

MAIATZAK 15, ostirala. Baserritarren eguna.

19:30etan. HERRI KIROLAK: Herriko neska-mutilez osatutako 2 taldeen arteko buruz-burukoa. Tartean bertsolarien saioa.

21:00etan. AFARIA Itsas Aurren. Bertan Sustrai Colina eta Jon Maia bertsolariak eta Alkorta anai-arreba trikitilariak giroa alaitzen arituko dira.

Afarirako txartelak: Txistu, Mendizorrotz eta Txapela tabernetan egongo dira salgai. 25€.

MAIATZAK 16, larunbata.

11:30etan. HAURREN EMANALDIA eskolan.

17:30etan. HAURREN JOLASAK plazan.

21:00etan. BARRIKOTEA oilasko-errearekin, Lizardin. Txartelak 10€tan bertan. Tartean Ligelatur sari banaketa.

22:30etan. Hernaniko AKELARREA (antzerki emanaldia).
Ondorenean, DJ Larra.



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**

Laguntzailea:

